



## **2016KO PENTEKOSTE JAİETAN, SAN MARTIN PLAZAN UDALAK JARRIKO DUEN TXOSNAREN USTIAKETAREN ADJUDIKAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA- PLEGUA**

**LEHENENGOA.**- 2016ko maiatzaren 13, 14 15, 16 eta 17an San Martin Agirre plazan txosna bat jarriko du udalak. Interesdunek txosna ustiatzeko eskaera egin ahal izango dute.

**BIGARRENA.**- Bergarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten kultur edo kirol elkarteek, herri-taldeek eta ongintzako elkarteek aurkez ditzakete eskaerak, lehentasuna izango dutelarik kultura, kirola, hezkuntza edo irakaskuntza eta ongintza helburu dituzten herriko taldeek.

**HIRUGARRENA.**- Interesatuak plegu honi eransten zaion inprimakia erabilia aurkeztu behar dute eskaera, taldeak edo elkarteak izendatutako ordezkariak izenpetua, honek ordezkartuko baitu taldea udalaren aurrean.

Adinez nagusia den eta jarduteko gaitasun osoa duen pertsona batek sinatu beharko du eskaera.

Entitate, elkarte edo taldea adinez txikiak direnek osatzen badute gehiengoz, hauen ordezkari legalak –honetarako izendatutako ahalmen osoa duen pertsonak– aurkeztu beharko du eskaera.

Halako akordiorik ziurtatu ezean, txosnaren jardueraren erantzukizun osoa eta baldintzak betetzearen erantzukizuna eskatzaileak bere gain hartzen dituela ulertuko da; gehienak adinez txikiak direnekin osatutako elkarte, entitate edo taldeen kasuetan izan ezik, non eskaera baztertu egingo da.

**LAUGARRENA.**- Instantziak aurkezteko epea **apirilaren 22an**, 12:00etan bukatuko da.

**BOSGARRENA.**- Eskari bat baino gehiago balego, zozketa egingo da, udaletxeko Idazkaritzako bulegoan, apirilaren 22an bertan, 12:30ean.

Eskaera aurkeztu dutenen artean egingo da zozketa; eta aurkeztutako taldeen artean lehentasuna izango dute kultura, kirola, hezkuntza edo irakaskuntza eta ongintza helburu dituzten herriko taldeek, betiere 2014 eta 2015 urteetan Pentekoste jaietan San Martin plazan jarritako txosnaren adjudikazio-hartzaile izan ez balira, azken hauek ere itxoite-zerrendara pasatuko baitira.

**SEIGARRENA.**- Zozketan onuradun ateratakoek bere gain hartu beharko dituzte Bergarako jai nagusietan eta auzoetako jaietan txosnen instalakuntza arautzen duen Udal Erregelamenduan ezarritako betebeharrak guztiak (1993ko uztailaren 26ko Osoko Bilkuran onartua eta 1993ko abuztuaren 20ko GAO n argitaratua, eta 1996ko martxoaren 4an Udal Osoko Bilkurak onartutako eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1996ko apirilaren 2an argitaratutako aldaketarekin).

**“Ekainaren 25eko 18/1998 Legean ezarritakoaren arabera, debekatuta dago 18 urtetik beherakoei edari alkoholikoak eta tabakoa saltzea; BERAZ, HORI BETE BEHARKO DA ETA HORRI BURUZKO KARTELA IKUSTEKO MODUKO TOKIAN JARRI BEHARKO DA.”**

Jendaurrean lana egin behar dutenek euskaraz hitz egiten jakin beharko dute, eta kartel eta antzekoak eta eman beharreko informazioa (prezioak...) euskaraz edo ele bietan egingo da. Ele bietan balitz, euskarari lehentasuna emanaz egin beharko da.

Txosnaren adjudikazioa egin ondoren, adjudikazio-hartzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du Idazkaritzan **apirilaren 29 ostiraleko 12:00ak baino lehen**:

- 375 euroko fidantza egiaztatzen duen agiria.
- Bergarako Pentekoste jaietan jarritako txosnaren jarduerak eragin ditzakeen arriskuak eta txosnak berak sortu ditzakeen arrisku eta kalteak babesteko, **Erantzukizun Zibilaren poliza -240.404,84 euroko gutxieneko kapitalarekin-kontratatu izanaren agiria.**

Halaber, **apirilaren 29ko** 13:00ak baino lehen, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Adjudikazio-hartzaileak ordezkari bat aurkeztu beharko du, horren datu guztiekin.
- Gehiengoz adinez txikiak direnek osatzen duten talde edo entitateak txosna jartzeko baimena izan badu, honako hau ere aurkeztu beharko du:

Eranskinean jasotako ereduari zehatz-mehatz jarraituz, ordezkari legalak sinatutako dokumentua. Bertan adieraziko du berak ordezkatzeko duen txosnan lan egiteko baimena duela eta instantzia aurkeztu duena ordezkari izendatu duela hirugarren baldintzan jasotako eraginetarako.

Goian aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, udalak ez du baimenik emango eta ezin izango da instalazioa zabaldu.

**ZAZPIGARRENA**- Hainbat adierazpen eta betebeharrak:

- a) Txosnak eramaten duen argindarraren instalazioa legalki egina dagoela egiaztatu nahian, udalak egingo du instalazio osoa eta udalak berak bereganatuko du ordainketa.
- b) Edateko ura eramateko lanen kostua ere udalaren kontura izango da eta udala arduratuko da egin beharreko lanak agintzearekin.
- c) Edalontzi berrerabilgarriekin egin beharko da lan, derrigor. Behar izanez gero udalak baditu eta Kultur Zerbitzuan jaso ahal izango dira. Garbiketa egin behar dela-eta, dagokion kostua ordaindu beharko da (Kultura Departamenduan emango da zenbatekoa den datua); eta bestalde, bueltatu ez den edalontzi bakoitzeko euro bat ordaindu beharko da.
- d) Sortzen diren hondakinak ongi sailkatuak biltzen direla ziurtatu beharko da. Horretarako zailtasun bereziak egon daitezkeela uste bada, hondakinen informazio bulegora jo daiteke. Bertan gidak, hiztegiak edo kartelak jaso daitezke hondakinak egoki sailkatzen laguntzeko.

Bestelako eskaerarik ez badago, udalak ontzi arinak eta papera biltzeko edukiontzia jarriko dizkie eskura eta adjudikazio-hartzailea arduratuko da betetako ontziak udalak antolatutako hondakinak jasotzeko guneetara jarritako ordutegian eramateaz.

- e) **Ekitaldiak dauden momentuan** ez da muskarik jarriko txosnan, eta beranduen ere goizeko 03:00etarako kenduko da, Udaltzaingoak lehenago kentzeko agindua emango ez balieke, eta goizeko 11:00ak baino lehen ezingo da berriz jarri. Astearte gauean, maiatzaren 17an, berriz (hau da, asteazkenean), goizeko 1:00etarako kendu beharko da.
- f) Kartel edo antzekoak:

- Txosna-gunean ez da pertsona/talde bat iraindu edo gutxiesten (denigratzen) duen ez kartelik/irudirik edo antzekorik jarriko; eta norbaitek jartzen badu, berehala kentzeaz arduratuko da.
  - Txosna-gunean ez da irudi/esaldi sexistarik duen kartelik jarriko; eta norbaitek jartzen badu, berehala kentzeaz arduratuko da.
  - Ustiatzen duen taldearen izena eta prezioak jasotzen dituzten kartelak jarri ahalko dira bakarrik, azken hauek derrigorrezkoak izanik.
- g) Txosna-gunean, udalerriko hizkuntzaren erabilera-irizpideei jarraituz, euskarak derrigorrezko presentzia nabarmena izan beharko du, ahozko zein idatzizko edozein adierazpidetan.
- h) Adin txikikoei alkohola ateratzea debekatuta dago, eta betebeharrak hau bermatu egin beharko da

**ZORTZIGARRENA.**- Txosna **maiatzaren 12an** jarriko da eta maiatzaren 19an kenduko da; hortaz, **maiatzaren 18rako** guztiz hustu beharko da.

Txosna bera utzitako baldintza berdinetan eta guztiz hutsik bueltatu beharko da.

Halaber, txosna hau jaietan plaza girotzen laguntzeko jartzen denez, eranskinean jasotako ordutegian zehar derrigor irekita egon beharko da.

**BEDERATZIGARRENA.**- Txosnaren ordezkaria eskaera aurkeztu duena dela kontsideratuko da, betiere **apirilaren 29a** baino lehen aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera beste bat izendatu dutela adierazten ez bada. Ordezkari hau txosna jarrita dagoen egunetan lokalizatzeko moduan egongo da, eta honetarako harremanetarako telefono mugikor baten zenbakia emango du.

**PLIEGO DE CONDICIONES REGULADORAS PARA LA ADJUDICACIÓN DE LA EXPLOTACIÓN DE LA CHOZNA A INSTALAR POR EL AYUNTAMIENTO EN LA PLAZA DE SAN MARTÍN DURANTE LAS FIESTAS DE PENTECOSTÉS DE 2016**

**PRIMERO.-** Durante los días 13, 14, 15, 16 y 17 de mayo de 2016, el Ayuntamiento de Bergara instalará una chozna en la plaza de San Martín de Aguirre. Quienes estén interesados en su explotación podrán realizar la oportuna solicitud.

**SEGUNDO.-** Podrán presentar su solicitud todas las entidades culturales o deportivas, organizaciones populares y asociaciones benéficas bergaresas sin ánimo de lucro, teniendo prioridad las agrupaciones o asociaciones bergareses cuya finalidad sea cultural, deportiva, educativa o docente, o de tipo benéfico.

**TERCERO.-** Las entidades interesadas deberán presentar su solicitud mediante el impreso que se adjunta al presente pliego, y que deberá estar suscrito por la persona que designen como representante de la agrupación o asociación ante el ayuntamiento.

La persona que suscriba la solicitud deberá ser mayor de edad y con plena capacidad de obrar.

En caso de que la entidad, asociación o agrupación estuviera constituida mayoritariamente por menores de edad, la solicitud la deberá presentar la persona con plena capacidad de obrar que haya sido designada como su representante legal.

En caso de no justificar el referido acuerdo, se considerará que es la persona solicitante la que asume toda la responsabilidad de la actividad de la chozna y del cumplimiento de las condiciones; salvo en el caso de asociaciones, entidades o agrupaciones constituidas mayoritariamente por menores de edad, en cuyo caso será desestimada la solicitud.

**CUARTO.-** El plazo de presentación de instancias finalizará a las 12:00 horas del día **22 de abril**.

**QUINTO.-** En caso de haber más de una solicitud, se realizará un sorteo el mismo día 22 de abril, a las 12:30 horas, en las dependencias municipales de Secretaría.

El sorteo se efectuará entre las solicitudes presentadas, pero tendrán prioridad las agrupaciones bergaresas cuyo objeto sea cultural, deportivo, educativo o docente, o de tipo benéfico, y que no hayan resultado adjudicatarias de la chozna de la plaza de San Martín en las fiestas de Pentecostés en los años 2014 y 2015; en este último caso, pasarán también a la lista de espera.

**SEXTO.-** La entidad agraciada en el sorteo deberá asumir la totalidad de las obligaciones establecidas en el Reglamento Municipal regulador de las choznas que se instalen con motivo de celebración de fiestas patronales y fiestas de barrios en Bergara (reglamento que fue aprobado por el Pleno Municipal el 26 de julio de 1993 y publicado en el BOG el 20 de agosto de 1993, y cuya modificación fue aprobada por el Pleno Municipal el 4 de marzo de 1996 y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 2 de abril de 1996).

**Conforme a lo establecido por la Ley 18/1998, de 25 de junio, está prohibida la venta de alcohol y tabaco a menores de 18 años, LO CUAL SERÁ DE OBLIGADO CUMPLIMIENTO, DEBIENDO COLOCARSE UN CARTEL VISIBLE INDICANDO DICHA PROHIBICIÓN.**

Las personas que vayan a trabajar de cara al público deberán saber euskera a nivel hablado, y los carteles informativos y similares (precios...) deberán ir en euskera o en bilingüe, dando prioridad al euskera en este último caso.

Una vez realizada la adjudicación de la chozna, **antes de las 12:00 horas del viernes 29 de abril**, la adjudicataria deberá presentar en Secretaría la siguiente documentación:

- Documento acreditativo de haber constituido una fianza de 375 euros.
- **Documento que acredite la contratación de una póliza de Responsabilidad Civil, con un capital mínimo de 240.404,84 euros**, para cubrir los riesgos y daños que pudieran derivarse de la actividad de la chozna y de la propia chozna instalada en fiestas de Pentecostés en Bergara.

Así mismo, antes de las 13:00 horas del **29 de abril**, deberán entregar:

- Los datos completos de la persona que representa a la adjudicataria.
- En caso de que la autorización para la explotación de la chozna haya recaído en una agrupación o entidad constituida mayoritariamente por menores de edad, deberán presentar así mismo lo siguiente:

Documento suscrito por la persona representante legal, ateniéndose estrictamente al modelo recogido en el anexo, mediante el cual la persona representante autoriza expresamente a la persona representada a trabajar en la chozna, y designa como representante a quien suscribe la instancia a los efectos señalados en la cláusula tercera.

En caso de no presentar la documentación arriba señalada, el ayuntamiento no concederá la autorización, por lo que no se podrá abrir la instalación.

**SÉPTIMO.-** Disposiciones varias:

- a) A fin de asegurar que la instalación eléctrica de la chozna se realiza con todos los requisitos legales, ésta será realizada y costada por el ayuntamiento.
- b) Así mismo, el ayuntamiento encargará los trabajos precisos para el suministro de agua potable, asumiendo también su coste.
- c) Deberán utilizarse obligatoriamente vasos reciclables. En caso preciso, el ayuntamiento dispone de ellos y podrán recogerlos en el Servicio de Cultura. Deberán abonar el coste de su limpieza (en el Departamento de Cultura les informarán del importe), y además, por cada vaso que no se devuelva deberán abonar un euro.
- d) Se deberá asegurar la correcta clasificación de los residuos generados. Si se considera que puede haber especial dificultad para ello, pueden acudir a la oficina de información de residuos, donde podrán obtener guías, glosarios o carteles para facilitar la clasificación correcta de los residuos.

Si no hubiese petición en otro sentido, el ayuntamiento les hará entrega de contenedores para la recogida de envases ligeros y papel. La adjudicataria se responsabilizará de llevar los contenedores llenos, en el horario fijado, a los puntos de recogida de residuos establecidos por el ayuntamiento.

- e) **Durante la celebración de eventos**, no podrá haber música en la chozna, y en todo caso se deberá apagar como muy tarde a las 03:00 de la mañana, salvo que la Policía Municipal ordene quitarla antes, y no podrá volver a encenderse

hasta las 11:00 de la mañana. La noche del martes 17 de mayo, se apagará la música como mucho a las 01:00 horas (del miércoles).

f) Carteles o similares:

- En el espacio de la chozna no podrán colocarse carteles, imágenes ni similares que insulten o aludan de forma denigrante a personas o grupos; y en caso de que aparezca alguno, deberá ser retirado inmediatamente.
- En el espacio de la chozna no podrán colocarse imágenes ni frases sexistas; y en caso de que aparezca alguna, deberá ser retirada inmediatamente.
- Únicamente podrán colocarse carteles con el nombre de la agrupación adjudicataria y con los precios, siendo este último obligatorio.

g) En el espacio de la chozna, de conformidad con los criterios de utilización de la lengua en el municipio, el euskera deberá tener una presencia preeminente, tanto en la expresión oral como por escrito.

h) Está prohibido servir alcohol a menores, extremo cuyo cumplimiento se habrá de garantizar.

**OCTAVO.-** La chozna se montará **el 12 de mayo** y se retirará el 19 de mayo, de modo que para el día **18 de mayo** deberá quedar totalmente vacía.

La chozna deberá entregarse en las mismas condiciones en que se recibió y completamente vacía.

Además, dado que la chozna se instala para impulsar el ambiente festivo de la plaza, deberá permanecer abierta obligatoriamente al menos durante el horario establecido en el anexo.

**NOVENO.-** Se considerará como representante de la chozna a quien haya presentado la solicitud, salvo que en la documentación que han de presentar antes del **29 de abril** se haya comunicado la designación de otra persona. La persona representante deberá estar localizable durante los días en que la chozna está instalada, para lo cual deberá facilitar un número de teléfono móvil de contacto.

ERANSKINA / ANEXO

TXOSNA IREKITA EGON BEHARREKO GUTXIENEN ORDUTEGIA	HORARIO MÍNIMO DE FUNCIONAMIENTO DE LA CHOZNA
<p><b><u>Ostirala, maiatzak 13</u></b> 20:15etik kontzertua amaitu arte (2:30 +/-).</p>	<p><b><u>Viernes 13 de mayo</u></b> <i>De 20:15 hasta finalizar el concierto (2:30 +/-)</i></p>
<p><b><u>Larunbata, maiatzak 14</u></b> 12:00etatik 15:00etara 18:00etatik kontzertua amaitu arte (01:30 +/-)</p>	<p><b><u>Sábado 14 de mayo</u></b> <i>De 12:00 a 15:00 horas</i> <i>De 18:00 hasta finalizar el concierto (01:30 +/-)</i></p>
<p><b><u>Igandea, maiatzak 15</u></b> 12:00etatik 15:00etara 15:30etik kontzertua amaitu arte (20:00 +/-)</p>	<p><b><u>Domingo 15 de mayo</u></b> <i>De 12:00 a 15:00 horas</i> <i>De 15:30 hasta finalizar el concierto (20:00 +/-)</i></p>
<p><b><u>Astelehena, maiatzak 16</u></b> 14:00etatik 21:00ak arte</p>	<p><b><u>Lunes 16 de mayo</u></b> <i>De 14:00 a 21:00 horas</i></p>
<p><b><u>Asteartea, maiatzak 17</u></b> 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 22:00etara</p>	<p><b><u>Martes 17 de mayo</u></b> <i>De 12:00 a 15:00 horas y</i> <i>De 19:00 a 22:00 horas</i></p>
<p>Ordutegi hau hobeto zehaztuko da jaietako egitarauaren arabera.</p>	<p><i>Este horario se precisará más una vez confeccionado el programa de fiestas.</i></p>

**2016ko MAIATZAREN 13, 14, 15, 16 eta 17an SAN MARTIN PLAZAKO  
TXOSNA USTIATZEKO ESKAERA**

**SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN PARA EXPLOTACIÓN DE LA CHOZNA INSTALADA EN LA  
PLAZA SAN MARTÍN DURANTE LOS DÍAS 13, 14, 15, 16 Y 17 DE MAYO DE 2016**

**Eskatzailea/Solicitante**

<b>Izena / Nombre</b>		<b>1. abizena / 1<sup>er</sup> apellido</b>		<b>2. abizena / 2<sup>o</sup> apellido</b>	
<b>NAN / DNI</b>		<b>Telf</b>		<b>email</b>	

Bere izenean / En nombre propio  Honakoaren izenean / En representación de

**Ordezkatuaren datuak/Datos del representado/a**

<b>Izena eta abizenak- Sozietatearen izena / Nombre y apellidos – Razón social</b>	<b>NAN-IFZ / DNI-NIF</b>

**Helbidea, jakinarazpenetarako / Dirección a efectos de notificación**

<b>Helbidea / Dirección</b>	<b>Posta K / C. postal</b>	<b>Herria / Población</b>

**Helbide elektronikoa, jakinerazpenetarako / Dirección electrónica a efectos de notificación**

--

**Ordezkatzen duen talde, entitate edo elkarte / Agrupación o entidad que representa**

--

**2016. urteko Bergarako Pentekoste jaietan, San Martin plazako txosna ustiatzeko eskaera egiten du.**

**Sinatzaileak, adinez nagusia eta ahalmen osoa izanik, eta goian aipatutako talde edo elkartearen izenean eskaera hau aurkezteko ahalmena duenez, zin egiten du ezagutzen dituela txosnaren ustiaketa arautuko duen baldintzen plegua eta baita auzoetako eta jaietan eta Pazkoetan jarriko diren txosnak arautzen dituen Udal Erregelamendua ere, eta bertan ezarritako baldintza guztiak berak ordezkatzen duen talde edo entitateak beteko dituela.**

**Halaber, zin egiten du:**

- ⑤ Txosna jartzeko baimena lortuko balu berak ordezkatzen duen taldeak, bertan lan egingo dutenak adinez nagusiak direla.
- ⑤ Berak ordezkatzen duen taldekoek, adinez

*Solicita autorización para explotar la chozna instalada en la plaza de San Martín durante las fiestas de Pentecostés de Bergara correspondientes al año 2016.*

*La persona firmante, mayor de edad y con capacidad de obrar plena y poder suficiente para presentar la solicitud en nombre del grupo/entidad arriba señalado, manifiesta que conoce el Reglamento regulador de las choznas que se instalen con motivo de la celebración de las fiestas patronales y fiestas de barrios de Bergara, y declara bajo juramento que la agrupación o entidad a la que representa cumplirá las obligaciones recogidas en dicho reglamento.*

*Asimismo declara bajo juramento:*

- ⑤ *Que si el grupo al que representa obtiene autorización para la instalación de una chozna, quienes trabajarán en la misma son mayores de edad.*
- ⑤ *Que aún siendo menores de edad las personas a las que representa, tienen todas ellas autorización de*





txikiak izanda ere, txosnan lan egiteko bakoitzaren ordezkari legalaren baimena dutela eta agiria aurkeztuko duela.

⑤ Ez bera ez berak ordezkatzeko duen taldea ez direla izan San Martin plazako txosnaren adjudikazio-hartzaile aurreko 2 urteetako Pentekoste jaietan.

*sus respectivos representantes legales para trabajar en la chozna y que presentará el documento justificativo.*

⑥ *Que ni la persona representante ni la agrupación a la que representa han sido adjudicatarias en los dos últimos años de la chozna que se coloca en la plaza San Martín en las fiestas de Pentecostés.*

**Bergaran,**.....

### **ESKATZAILEA (SOLICITANTE)**

**OHARRA:** Eskaera-orri honetako datu pertsonalak dagokionaren onespenez jasotzen dira eta behar bezala baimendutako Bergarako Udalaren fitxeroetan sartuko dira. Datu horiek bakarrik udal kudeaketarako erabiliko dira, eta beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie SOILIK abenduaren 13ko 15 / 1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute ondorengo helbidera zuzenduta: Bergarako Udala.-San Martin Agirre plaza, 1.- 20570 Bergara.

**NOTA:** Los datos personales contenidos en la presente solicitud son recogidos bajo el consentimiento de la persona afectada y serán incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados titularidad del Ayuntamiento de Bergara. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

Las personas interesadas podrán ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición dirigiéndose a: Bergarako Udala.- San Martin Agirre plaza, 1.-20.570 Bergara.

## TXOSNARAKO BAIMENA

**Ordezkarri legalaren datuak/** Datos de la persona representante legal:

<b>Izena / Nombre</b>		<b>1. abizena / 1<sup>er</sup> apellido</b>		<b>2. abizena / 2<sup>o</sup> apellido</b>	
<b>NAN / DNI</b>		<b>Telf</b>		<b>email</b>	

**Ordezkatuaren datuak/**Datos de su representado/a

<b>Izena eta abizenak- / Nombre y apellidos</b>	<b>NAN-IFZ / DNI-NIF</b>

Begarako Udalaren aurrean honako hau  
**ADIERAZTEN DUT:**

- 1.- Onartzen dudala ..... jaunak/andreak nire ordezkatuaren (seme-alabaren...) izenean Bergarako jaietan txosna bat hartzeko eskaera egitea, eta horrek dituen ondorioen ardura nire gain hartzea.
- 2.- Nire ordezkatuari txosnan lana egiteko baimena ematen diot eta, adinez txikia denez, onartzen dut jarduera horretatik sor daitekeen edozein erantzukizun ordezkarri legalaren gain gelditu daitekeela.

**EXPONE** ante el Ayuntamiento de Bergara:

1. Que aprueba que D./D<sup>a</sup> ..... en nombre de su representado/a (hijo/a...) solicite autorización para la instalación de una chozna en fiestas de Bergara y que asume la responsabilidad derivada de la solicitud.
2. Que autoriza a su representado/a a que trabaje en la chozna y que asume que, al ser menor de edad, cualquier responsabilidad derivada de dicha actividad podría recaer sobre su representante legal.

Bergaran, 2016ko .....

Ordezkarri legalaren sinadura

**OHARRA:** Eskaera-orri honetako datu pertsonalak dagokionaren onespenearekin jasotzen dira eta behar bezala baimendutako Bergarako Udalaren fitxeroetan sartuko ditu Datu horiek bakarrik udal kudeaketarako erabiliko dira, eta beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie SOILIK abenduaren 13ko 15 / 1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute ondorengo helbidera zuzenduta: Bergarako Udala.-San Martin Agirre plaza, 1.- 20.570 Bergara.

**NOTA:** Los datos personales contenidos en la presente solicitud son recogidos bajo el consentimiento de la persona afectada y serán incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados titularidad del Ayuntamiento de Bergara. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

Las personas interesadas podrán ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición dirigiéndose a: Bergarako Udala.- San Martin Agirre plaza, 1.-20.570 Bergara.